



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/01/31

Batzar Nagusiak turismoari egindako erasoak gaitzetsi eta sektorearen aldeko jarrera erakutsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren gaitzespena erakutsi dabe euskal turismo ereduaren kontra egin diran hainbat eraso dirala eta, eta sektorearen aldeko jarrera erakutsi dabe, Talde Popularraren ekimenez. Arauz Besteko Proposamena Gernikako Batzarretxean egin dan osoko saioan onetsi da gaur goizean. Urteko lehenengo osoko saioak Ohiko Osokoa egin dau lehenengo, onetsi ez diran beste ekimen bi landuz, eta ostean, lau itaun eta zortzi erantzun-eske jaso dituan Kontroleko Osokoa.

Javier Ruiz Talde Popularraren ordezkariaren eretziz, euskal turismo eredia “eredugarria” da, eta lurraldeko turismo sektorearen kontrako kanpainak eta ekintzek “gitxi laguntzen dabela” adierazo dau. Foru Gobernua eusten daben taldeek be idea berbera azpimarratu dabe. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Mistoak ekimenaren alde agertu dira, eta kritikoen agertzen diranek aitutzen dituen jende larregiko pilaketak “ez ohiko kasuak” dirala azpimarratu dabe. Beste alde batetik, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeak kontra agertu dira, gaur eztabaidatu dan proposamenak, gura dan turismo eredian zentrau behar dan benetako eztabaidea ezkutetan dauela adierazoz. Holan, talde biek lan prekariedade eta gentrifikazio arazoak itzi ditue agerian, eta eredu jasangarriagoaren alde agertu dira.

Ohiko Osokoaren eguneko gai zerrendea, Talde Mistoak Bizkaiaren nortasun adierazgarrien gainean aurkeztuko dituan Arauz Besteko Proposamen bik osatu dabe. Lehenengoan, “ikurriña” izenaren orde “bandera” izena erabiltea proponidu dau, Euskaltzaindiaren erespideakaz bat etorrita, eta bigarrenean, lurraldeko sinboloen artean Gernikako Arbolea sartzea eskatzen zan. Proposamen biek Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen aldeko eretxia jaso dabe, baina Foru Gobernua eusten daben taldeen kontrako botoak eta Talde Popularraren abstentzinoa jaso ditue, ez dala arazoak sortzen dituan kontua eta ez daukala lehentasunik adierazoz.

Ohiko Osokoa, Jesús Isasi Talde Popularreko batzarkidearen eskerroneko berbakaz hasi da. Aurreko osokoa bukatzean trafiko istripua jasan eban, Gonzalo Machín alderdikideagaz batera. Isasik, batzarretako talde guztiek erakutsitako alkartasuna eskertu dau.

HAMABI ERANTZUN-ESKE ETA ITAUN KONTROLEKO OSOKOAN

Ohiko Osokoa bukatu ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiek urteko kontroleko lehenengo saioa egin dabe. Osoko horren eguneko gai zerrendan, oposizino taldeek egindako lau itaun eta zortzi erantzun-eske jaso dira. Landu diran gaien artean “De Miguel kasua” izeneko, Arrontegiko zubiaren alternatibea, eregi behar dan Ezkerraldea – Meatzaldea Parke Teknologikoa edo Güeñes – Itsaso goi tentsinoko linea egon dira.

Asun Merinero Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, bere sailak “De Miguel kasua” izenekoan, batzordekidearen berbetan “Euskadin egin dan ustelkeriaren ondoriozko epaiketa handianean”, aurrera eroan dituan lege ekintzen gainean galdetu deutso Ogasuneko Foru Diputatuari. Jose María Iruarizagak adierazo dauenez, Aldundia akusazio partikular moduan aurkeztu da kasuan, Bizkaiko Foru Ogasunaren kontrako hiru delit urengaitik. Ustez pertsona juridiko bik eta pertsona fisiko batek egindako delituak dira, eta hiruen kopurua 550.000 eurotik

gorakoa da. Iruarriazagak zehaztu dauenez, foru erakundeak, kasu honegaz erlazionautako kartzela, gaitasunbakotze, isun eta erantzukizun zibila eskatu ditu pertsona fisiko batentzat eta pertsona juridiko birentzat.

Javier Ruiz Talde Popularraren ordezkariak, bere aldetik, Arrontegiko zubian egoten diran trafiko pilaketen, dagozan alternatiben eta horreek martxan jarteko epeen gaineko erantzun-eskea egin dau. Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak adierazo dauenez, une honetan bide-zubiaren alternatibak (Lamiakoko erreka azpiko tunela eta Axpeko eta Lutxanako zubiak) aztertzen ari dira, eta Aldundiak denpora gitxi barru hasiko ditu hartu-emonak Batzarretako talde guztiakaz, proposamen adostua lortzeko asmoz.

EH Bildu taldeko Joseba Gezuragak, Imanol Pradalesek erantzun dauen beste erantzun-eske bat egin dau, oraingo honetan Ezkerraldea – Meatzaldea Parke Teknologikoagaz erlazionautakoa. Gezuragak proiektuaren zehaztapenak eskatu ditu, baina Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, oraindino 2,5 milioi euroko aurrekontua baino ez da jaso, urbanizazio lanak eta sarbideak lizitetako. Geroago egingo diran jarduketan gainean, Aldundiak jagokon unean, eta Eusko Jaurlaritzagaz koordinata, jakinarazoko dituala iragarri dau.

Orain denpora gitxi Gobernu Zentralaren Energia Politikako Zuzendaritza Nagusiaren baimena jaso dauen eta Bizkaian dagon Güeñes eta Gipuzkoan dagon Itsaso arteko goi tentsinoko linea izan da EH Bildu taldearen beste erantzun-eske baten gaia, eragina jasoko daben udalerrri askoren kontrako jarrera eta biztanleen osasunean izan daiketan eragin kaltegarria dala eta herritarrek aurkeztu dituen alegazioak aitatu. Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak, bere Sailak azpiegitura horren aurrean dituan zalantzak aitatu ditu, eta Gobernu Zentralak ez dauela ezelango erantzunik emon adierazo dau. Hori dala eta, errekerimendua aurkeztu da linearen eraikuntza onetsi eban ebazpenaren kontra.

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak birritan egin dau berba, Javier Ruizen (PP) eta Josu Unanueren (EHB) erantzun-eske biri erantzuteko. Lehenengoa Ekintzaitzarako Nazinoarteko Zentroaren proiektuaren gainekoa izan da. Rementeriak adierazo dauenez, urte honetako urrian bertan argia ikusi daikela aurreikusten da, baina azpimarratu dauenez, martxan jarri aurretik emon beharreko hainbat pausu falta dira oraindino. Ahaldu Nagusiaren bigarren esku-hartzea, bere eretxiz oso positiboa izan dan Gaztedi Bizkaia 2020 planaren balorazioan zentrau da. 2017an mila gazte baino gehiagok hartu dabe parte, eta 382 ekintza eta proiektu jarri ditu martxan.

Gainerako esku-hartze gehienak gizarte ongizatearen arloan zentrau dira, Talde Popularrak menpekotasuna daukien pertsonentzako eguneko zentroaren irekieraren eta adimen urritasuna daben pertsonen kontratazioaren gainean egin dituan erantzun-eskeakaz. Podemos Bizkaiak, bere aldetik, Gizarte Ekintza saileko beharginen arrisku psiko-sozialen eta familiek umeentzako garapen eta arreta goiztiarreko zentroa aukeratzeko daukien eskubidearen gaineko interesa erakutsi dau, hurrenez hurren.

Eguneko gai zerrendea ahozko erantzun-eske bigaz osatu da. Lehenengoa Podemos Bizkaia taldeak egin dau, Bizkaiko artisautza sektorearen diagnostiko eta egoera azterlanen inguruan, eta bigarrena EH Bilduk, eskumen propioen azterketa orokorraren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde maila desbardinaren finantzaketaren gainean.

31/01/18

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan los ataques al turismo y muestra su apoyo al sector

Las Juntas Generales de Bizkaia han mostrado su rechazo a los ataques registrados el pasado verano en contra del turismo, y han manifestado su apoyo al sector por iniciativa del Grupo Popular, que ha presentado una Proposición No de Norma en este sentido en la sesión plenaria celebrada esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika. Este primer Pleno del año ha constado de una sesión ordinaria y una de control, que ha incluido cuatro interpelaciones y ocho preguntas orales.

El representante del Grupo Popular, Javier Ruiz, ha calificado el modelo turístico vasco como “ejemplar”, una idea compartida por los grupos que sustentan al Gobierno Foral. Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y también el Grupo Mixto han mostrado su apoyo a la iniciativa tras incidir en que los casos de masificación de determinados emplazamientos que han sido objeto de crítica generalizada a las que hacen referencia los más críticos son “casos excepcionales”. Los grupos Podemos Bizkaia y EH Bildu han votado en contra alegando que la propuesta hoy a debate oculta el verdadero debate, que debe centrarse en el modelo turístico. En este sentido los dos grupos han puesto de manifiesto los problemas de precariedad laboral y de gentrificación, y han abogado por un modelo más sostenible.

El orden del día del Pleno Ordinario se ha completado con dos iniciativas del representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, en torno a los signos de identidad de Bizkaia en la Norma Foral que los regula. En la primera, proponía sustituir el término “ikurriña” por el de “bandera”, de acuerdo a criterios de Euskaltzaindia, mientras que en la segunda solicitaba incluir al árbol de Gernika entre los símbolos del Territorio Histórico. Ambas propuestas han recibido el apoyo de Podemos Bizkaia y EH Bildu, pero han sido rechazadas con los votos en contra de los dos grupos que apoyan al Gobierno Foral y la abstención del Grupo Popular, con el argumento de que no se trata de una cuestión que suscite inconvenientes ni que represente un problema prioritario.

El Pleno Ordinario se ha iniciado con unas palabras de agradecimiento del juntero del Grupo Popular, Jesús Isasi, que a la conclusión del anterior pleno sufrió un accidente de tráfico junto a su compañero de partido Gonzalo Machín. Isasi ha agradecido la solidaridad mostrada por todos los grupos políticos.

DOCE PREGUNTAS E INTERPELACIONES EN LA SESIÓN PLENARIA DE CONTROL

Tras concluir el Pleno Ordinario, las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado su primera sesión de control del año, un Pleno en cuyo orden del día figuraban cuatro interpelaciones y ocho preguntas formuladas por los grupos junteros de la oposición. Entre ellas han estado asuntos como el llamado “caso De Miguel”, la alternativa al puente de Rontegi, el futuro Parque Tecnológico de Ezkerraldea – Meatzaldea o la línea de alta tensión Güeñes – Itsaso.

La apoderada de Podemos Bizkaia, Asun Merinero, ha preguntado al Diputado Foral de Hacienda por las acciones legales llevadas a cabo por su Departamento en el conocido como “caso De Miguel”, “el mayor juicio por corrupción en Euskadi”, según la juntera. Jose María Iruarrizaga ha señalado que la Diputación se ha presentado como acusación particular en el caso por tres delitos contra la Hacienda Foral de Bizkaia, presuntamente cometidos por dos personas jurídicas y una persona física, por un montante conjunto superior a los 550.000 euros. Iruarrizaga ha precisado que el ente foral ha pedido penas de prisión, inhabilitación, multa y responsabilidad civil a una persona física y a dos personas jurídicas en relación con este caso.

Por su parte, el representante del Grupo Popular, Javier Ruiz, ha formulado una pregunta en torno a la saturación del tráfico en el puente de Rontegi, sus alternativas y los plazos para ponerlas en marcha. El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha contestado que las tres alternativas al viaducto (túnel subfluvial de Lamiako y puentes de Axpe y Lutzana) se están analizando actualmente, y que la Diputación iniciará en breve contactos con todos los grupos de la cámara con el objetivo de lograr una propuesta consensuada.

Joseba Gezuraga, en representación de EH Bildu, ha formulado otra pregunta respondida por Imanol Pradales, y referida en este caso al proyecto de Parque Tecnológico de Ezkerraldea – Meatzaldea. Gezuraga solicitaba detalles en torno a la concreción del proyecto, pero el responsable foral ha manifestado que por el momento tan solo se han presupuestado este año 2,5 millones de euros para licitar los trabajos de urbanización y accesos. Sobre actuaciones posteriores ha asegurado que la Diputación las anunciará a su debido tiempo y en coordinación con el Gobierno Vasco.

La línea de alta tensión entre la localidad vizcaína de Güeñes y la guipuzcoana de Itsaso, recientemente autorizada por la Dirección General de Política Energética del Gobierno Central, ha sido objeto de otra pregunta del grupo EH Bildu, alegando la posición contraria de muchos municipios afectados y las alegaciones ciudadanas por su posible repercusión en la salud de la población. La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha expuesto las reservas de su Departamento ante esta infraestructura y la falta de respuesta por parte del Gobierno central, que han culminado con la presentación de un requerimiento contra la resolución que aprobó la construcción de esta línea.

El Diputado General de Bizkaia, Unai Rementería, ha intervenido en dos ocasiones, para responder a sendas preguntas de Javier Ruiz (PP) y Josu Unanue (EHB). La primera se ha referido al proyecto de Centro Internacional de Emprendimiento, sobre el que Rementería ha señalado que espera que pueda ver la luz en octubre de este mismo año, si bien ha reiterado que aún quedan pasos por dar antes de que se ponga en marcha. La segunda intervención del Diputado General se ha concretado en una valoración, a su juicio muy positiva, del plan Gaztedi Bizkaia 2020, que ha contado con la participación de más de un millar de jóvenes y ha supuesto la puesta en marcha de 382 acciones y proyectos a lo largo de 2017.

El resto de las intervenciones se han centrado, en buena medida, en torno al ámbito del bienestar social, con preguntas del Grupo Popular sobre la apertura de centros de día para personas dependientes y sobre contratación de personas con discapacidad intelectual. Por su parte, Podemos Bizkaia se ha interesado por los riesgos psicosociales de la plantilla de Acción Social y por el derecho de las familias a la elección de centros de desarrollo infantil y atención temprana, respectivamente.

El orden del día se ha completado con dos preguntas orales, la primera de Podemos Bizkaia sobre los estudios de diagnóstico y situación del sector artesano en Bizkaia, y la segunda de EH Bildu sobre el análisis general de competencias propias y la financiación de los distintos niveles institucionales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.